



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

**Ordenanza nº 33**  
**Precio Público por Asesoramiento y Gestión para la Promoción**  
**Empresarial realizada por el Área de Desarrollo Local**

**33. Ordenantza**  
**Toki Garapeneko Alorrek egiten duen kudeaketa eta ematen duen**  
**aholkularitzagatikako prezio publikoa**

HOJA 102. ORRIA

**I. XEDAPEN OROKORRA**

**1. ARTIKULUA**

*Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu 2005/9 Foru Arauaren 44. artikuluan xedatu denarekin bat etorriz, Toki Garapeneko Alorreko langileek enpresa-sustapenerako egiten dituzten aholkularitza eta kudeaketa lanengatikako prezio publikoa ezarri da.*

**II. ORDAINDU BEHARRA**

**2. ARTIKULUA**

*Toki Garapeneko Alorreko langileek, Udalaren baimenaz eta enpresak sustatzea helburu dutela, aholkularitza eta kudeaketa lanak egiten dizkieten pertsona edo erakundeek ordaindu behar dute ordenantza honetan araupetutako prezio publikoa.*

**III. ZENBATEKOA**

**3. ARTIKULUA**

*Ordenantza honetan araupetutako prezio publikoaren tarifa honakoa izango da:*

*- Aholkularitza eta kudeaketa lanetan egiten den ordu bakoitzeko, 84,25 €.*

*Udalak bere baliabideekin zerbitzua egiterik ez duen kasuetan, kanpoan kontratatzen duen zerbitzuaren benetako kostu osoa jasanaraztearen emaitzako tarifa ezarriko da.*

**IV. KUDEAKETA ETA BILKETA**

**4. ARTIKULUA**

*1. Ordenantza honetan araupetutako prezio publikoa ordaindu beharra zerbitzua hasitakoan sortuko da.*

**I. DISPOSICIÓN GENERAL**

**ARTÍCULO 1**

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 44 de la Norma Foral 9/2005, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, se establece el Precio Público por las labores de Asesoramiento y Gestión para la Promoción Empresarial, realizadas por el personal al servicio del Área de Desarrollo Local.

**II. OBLIGADOS/AS AL PAGO**

**ARTÍCULO 2**

Están obligadas al pago del precio público regulado en esta ordenanza, las personas o entidades a cuyo favor se autorice la realización de labores de asesoramiento y gestión para la Promoción Empresarial, por parte del personal al servicio del Área Desarrollo Local.

**III. CUANTÍA**

**ARTÍCULO 3**

La tarifa del precio público regulada en esta ordenanza será la siguiente:

- Por cada hora de asesoramiento y gestión 84,25 €.

En el caso de que el Ayuntamiento no pudiera prestar el servicio con medios propios, la tarifa a aplicar será la resultante de repercutir el coste real total correspondiente al servicio externo contratado.

**IV. GESTIÓN Y RECAUDACIÓN**

**ARTÍCULO 4**

1. La obligación de pago del precio público regulado por esta Ordenanza nace desde que se inicie la prestación del servicio.

2. *Ordaindu behar duen pertsonari likidazioa aurkezten zaionean ordainduko da prezio publikoa.*

3. *Udal administrazioak bankuko helbideratze sistema ezarri ahal izango du prezio publikoa ordaintzeko, ordaindu behar duena ados agertuz gero.*

#### **V. AZKEN XEDAPENA**

*Enpresak Sustatzeko Aholkularitza eta Kudeaketa Lanengatiko Prezio Publikoa araupetzen duen ordenantza hau 2018ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2017ko abenduaren 21eko 242. alean argitaratu eta gero, eta indarrean egongo da harik eta hura aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.*

2. El pago del precio público se efectuará en el momento de presentación a la persona obligada a realizarlo, de la correspondiente liquidación.

3. La administración municipal podrá establecer el sistema de pago mediante domiciliación bancaria, previa conformidad de la persona obligada al pago.

#### **V. DISPOSICIÓN FINAL**

La presente Ordenanza reguladora del Precio Público por Asesoramiento y Gestión para la Promoción Empresarial realizada por el Área de Desarrollo Local, empezará a regir el día 1 de enero de 2018, una vez aprobada definitivamente y publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 242 de fecha 21 de diciembre de 2017 y seguirá en vigor hasta tanto se acuerde su modificación o derogación.